

2.3. ELKARBIZITZA-BEHATOKIA (EB). KIDEAK.

Ikastetxeak berak erabakiko du behatokia nola osatu, betiere, bere ezaugarriak eta funtzionamendu-modua kontuan hartuta. Nolanahi den ere, bermatu egin behar da hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak ordezkaturata egon daitezzen; era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasuna ere zaindu behar da, eta, gutxienez, kolektiboan dagoen emakume eta gizonen arteko proportzioari begiratu behar zaio.

Hau izan liteke behatokia osatzeko modu bat:

- a) Ikasketa-burua edota Zuzendaritza-taldeko kideren bat.
- b) Irakasle bat
- c) Ikasleen ordezkari bi
- d) Garraio, jantoki eta AZPren ordezkari bat
- e) Guraso bat edo arduradun legala
- f) Orientazio-saileko lagun bat, eta, holakorik balego, eskolaz kanpoko jardunetako saileko beste bat.
- g) Inguruko erakunde eta entitateen ordezkari bat.

Sektore bakoitzak ahalegindu behar du bere taldea antolatzen eta taldekideak dinamizatzen, era horretara, kide guztiek partaidetza aktiboa izan dezaten.